**ALTZAKO UDALETXEA** **SAN MARTZIAL PLAZA 4**
**D MAILA**





**Egile eta data ezezagunak**
(Ez dago espedienterik Udal Artxiboan)

**Deskribapena**
Behe oina, lehen oina eta estalkipea du. Eraikina berritu egin da eta zurezko estalkia berreraiki egin da. Ingurunea ere berritu egin da, eta, hala, espaloiaren sestraren azpitik geratu da fatxada nagusia. Fatxada horrek harlanduko elementuak ditu azpaduretan eta inpostetan. Balkoi jarraitua ere nabarmentzen da –haren burdinerian 1889ko data ageri da–, baita kateatuko harlandu batean ageri den eguzki erlojua ere. Gainazalak entokatuta eta margotuta daude.

**Babes erregimena**
1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: ez.
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: jasodurak ez dira onartzen.

Udal Artxiboko espedientea: